

Marcos komandanteordea

EZLNko buruzagia

Gure helburua

■ Gure helburua ez da gobernu bat bota eta beste bat jartzea. Borroka politikorako esparru bat zabaldu nahi dugu, herritarrek, gehienek, partaidetza politikoa izan dezaten, iritziak eman ditzaten, erabaki dezaten zein sistema sozial, zein sistema politiko, zein gobernu nahi duten. Guretzat ez da hain garrantzitsua nor dagoen gobernuan, gobernuaren eta gobernatuen arteko harremana nolakoa den baizik. Gure ustez, soluzio egonkorragoa da, eta aberastasun historiko handiagokoa, estatu kolpea baino, iraultza azkarra edo luzea baino —berdin dio—, edo hondamendi politiko eta ekonomiko bat ordezkatzeko duen beste hondamendi politiko eta ekonomiko bat baino. Ez dugu nahi azkenean kontuak egin eta hala esatea: «Beno, bada, borrokan aritu gara hainbat urtetan, eta lehengoan gaude aldaketak egin baditugu ere. Gobernu bat bota genuen, eta beste bat jarri genuen haren orde; eta hainbat urte iragan ziren, baina berriro ere lehen bezala gelditu ginen: gizarte politikoa alde batean, eta bestean zibila». Ez bakarrik bestean, gizarte politikoa azpian baizik, eta erabakietan inola ere parte hartu ahal izan gabe; harik eta berriro ere nazkatu arte, eta berriz ere agertu eta mamitu beste mugimendu bat, baina bestelako esparru bat bete gabe, eta gizarte politikoa —beti goian— berregokitzea ahalbidetuz, eta gizarte zibila —betiko moduan— behean utziz. Borroka gune hori zabaltea lortzen badugu, borrokatu egingo gara, baina denek ikusiko gaituzten esparru batean, denok onartuko ditugun arau batzuekin eta baldintza berdinetan; hor ikusiko da zeinek irabazten duen, zeinek konbentzi edo beregan ditzakeen biztanle gehienak bere aukera politikoa alde egin dezaten. Hori da demokrazia, teoriarik ez izan beharko luke, eta horren alde ari gara borrokatzen.

Egoera horretan posible izango litzateke erabakitzea zen den egokiena: kapitalismoa, neoliberalismoa, sozialismoa edo komunismoa. Baina, gaur egun gertatzen den bezala, ez badago inolako esparru demokratikorik proposamen politikoko eragindakoekin, hau da, gobernatuekin, eztabaidatzeko —eta berdin dio zein sistema sozial dagoen indarrean—, bada, orduan, goiz edo berandurorot egingo du. Berlingo Harresiaren erortzeak, mundu sozialistaren hondamendiak ez zuen ekarri sistema sozial baten porrota eta bestearen garaipena, hau da, sozialismoaren porrota eta kapitalismoaren garaipena; aitzitik, politika egiteko modu baten porrota ekarri zuen

Berlingo Harresiaren erortzeak, mundu sozialistaren hondamendiak ez zuen ekarri sistema sozial baten porrota eta bestearen garaipena, hau da, sozialismoaren porrota eta kapitalismoaren garaipena; aitzitik, politika egiteko modu baten porrota ekarri zuen

ez daukagun nolakoa izango den; hala ere, jakin badakigu nolakoa ez duen izan behar, eta, era berean, badakigu era berri hori aurkitzeko ezinbestekoa dugula beste ahots batzuk izatea, beste urrats batzuk ematea. Hori badakigu. Guk diogu ezinezkoa dela gu bakarrik arituz gero. Era berean, uste dugu entzuten ikasi behar dugula, tokia ematen besteen hitzei. Eta gure jendeak, ez bakarrik armak darabiltzatenean, zapatista guztek baizik, ikasi behar dute beren hitzak ere baduela toki bat, eta hori lortzeko borrokatu behar dutela. Baliteke horik politikak egiteko molde berri bat sortzea.

Funtsezko premisa baten alde egiten ari gara: ez boterea hartzeari, ez Gobernuan karguak betetzeari, ez herriak aukeratu-tako postuei; ikusiko dugu nolako politikariak sortzen dituen horrelako antolakuntza batek. Uste dugu gutxienez desilusia eragingo duela politikari profesionalen artean: «Zergatik sartuko gara hori, etekinik aterako ez badugu?». Ikusiko dugu gure porrota, ezkerreko alderdi edo mugimendu demokratiko gisa, handiagoa ote den boterea hartu nahi eta jende asko erakartzea lortzen ez dutenena baino. Baina esaten digute herriak ez duela inoiz bat egingo gurekin ez badugu planteatzen boterea hartzea. Guk hala erantzuten dugu: «Eta zuk, boterea hartzea planteatzen duzun horrek, noiz izan duzu herria zure alde?». Premisa politiko horregatik, eskandaluzkoa baita, eta —diutenez— boterea edukitzea gustatzen ez zaitzula —egia inondik ere— anarkismora edo oposizionismoa bideratzen baizik, etiketa batean edo bestean sartu nahi gaituzte. Horrek gutxiago kezkatzen gaitu zeregintza politiko berriaren nolakotasuna zehazteak baino, batez ere EZLNko zapatisten eta gizarte zibileko zapatisten arteko harremanari dagokionez; izan ere, batik bat hor borrokatzen ari baikara.

Esperientzia handia dugu gaitzen eta berriz ere altxatzen; hori izan da EZLNren historia guztia. Baina zerbait berri egin nahi izatea, esparru berri batean aritzea, oso mingarria da, oso mingarria bidean aurkitzen ditugunentzat, baita guretzat ere. Zailena da, eta horretan asmatzea lortzen badugu, konponduta dago EZLNren etorkizuna. Eta ez dauka zenikusirik ez armekin, ez eta gerrarekin ere. Erantzun sozial berria da, eta, nire ustez, nazioartean kezkaragarioa izan da armen indarra baino, komunikatuen poesia baino; ideia hau da: posible da zerbait berri egitea, on da horretan ahalegintzea. Ez dugu zer galdurik. ■

Resurren aldizkariak hartuz. Erredakzioan itzulia

Txilardegi



Demokraziaren defentsa

Clintonek Kennedy-Damato deritzon Legea erabiltzen du demokrazia defenditzeko eta terrorismoa jazaritzeko. Defentsa porrokatu horretan beti izan du Turkia laguntzaile fidel: «*élément-clé du dispositif du flanc Sud*» (Le Monde, 1996-VIII-14).

Kurdiar terroristen kontra, bereziki, lagun bikaina izan da Turkia: aste hauetan, hain zuzen, berriro eman die baimena mendebaldir hegazkinei, Kurdistango guerrillaren kontrako erasoak lasai asko Turkiako aireportuetatik antolatzeko.

Ginebran elkartu da ONUko Giza-Eskubideen Azpi-Batzordea; eta Turkiaren basakeriak aztertutitu. Alde batetik, Kutlu Adali txipretar kazetariaren hilketa salatu du (turkiarra izanik ere, Ankarako desmasiak salatu baitzituen). IDH batzordeak jakinerazi duenez, 461 kazetari arrestatu ditu turkiar gobernuak 1995ean barrena.

Leyla Zana kurdiar deputatuaren kasoa ere aipatu du: Turkiako Parlamentuan kurdiaraz hitz egiteagatik 10 urte gartzela zigorra jasan du.

Horrez gain, eta 1995ean bakarrik, 231 detentitu desagertu dira Komisarrietan, epailetarrik gabe 122 pertsona hil dira, 321 preso hil dira inkontrolatuen eskuetan, bete 57 gehiago torturapean, eta 1.412 totura-salaketa aurkeztu dira.

Badirudi Ankarako gobernu nekez har daitkeela demokratizotzat, eta Clintonek aisa erabil zitzaizkela Turkiaren kontra gaur egun Iranen edo Cubanen kontra erabiltzen dituen jokabideak.

Baina Turkia OTANeko mutil zintzoa da.

Unai Iturriaga



Gauak asko eta luze!

Hasi dira Euskal Herriko festarik onenak: Bilbokoak noski! Eta hau esaten dudanean ez nioke kutsu probintziaristik eman nahi, baina halaxe da eta kitto! Hirietako festen inpersonalizazioaren garaian Bilboko festek aparteko izate bat lortu dute konpartise esker, eta hori erraz usaintzen da bai giroan eta baita egitarauan ere. Urtean zehar tabernetan sartuta ibili ondoren ederra da kanpoan ibiltzea txosnarik txosna. eta batez ere dirua behar den tokian uztearen sentisazioa izatea.

Aurtengo festek gainera berritasunik ez, baina ohitura baten segida ekarriko dute gutxienez. Zure nahia beti izan bada bideoklipetako artista izatea, zaude lasai, aurretik Barne saila-Mixll interaktiboetako protagonistetako bat izan zaitezke berriz ere. Etzaitz apaindu edo makilatu, ez baitakizu noiz eta noia agertuko zaren, baina hona gomendio batzuk: Kanutoak egiterakoan hamar gramotik gorako puska baldin badaukazu ez erakutsi, baita ixiza egin behar baldin baduzu ere aurpegia kaputxa batekin estali eta zirri batzuk egin nahi baldin badituzu lehenengo eta behin egiazta ezazu zure kidea ez dela zertam bat... hainbeste daude!

Gauak asko eta luzeak dira Bilbon aste nagusian. Elzazu galdu Nerbioiaren usainak eta lur-reko kalimotxo eta abarren kiraseak bat egiten duten une hori. Gogoangarria da!